



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko maiatzaren 11

68. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoa sortzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, kreditu berezia ematekoa Garraioaren Hiriko finken balio justua ezartzeari buruzko epaiari aurre egiteko, eta Nafarroako 2017ko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 28ko 24/2016 Foru Legea aldatzekoa, kreditu hori zabalgarritzat jo dadin. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Foru Legea, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, zeina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua zabaltzen duena Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun-langile batzuetara. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da lege-esparrua alda dezan elektrizitatea eta elektrizitatearen produkzioa, hornidura eta merkaturatzea herritarren zerbitzura egon daitezen eta energia-pobrezia prebenitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (20. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sakonki eta xeheki azter dezan Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako gradua ezartzeko aukera. Osoko Bilkurak onetsia (20. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kasuko legedia alda dezan, halako moduz non gorputz-atal baten bizirikako ematea egiten duten pertsonak aukera izanzen baitute, eta ofizialki hala aitortuko baitzaie, aldi baterako ezintasunagatikoko baja hartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (21. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumearen gorputza publizitate-apeu gisa edo sexu-objektu gisa erabiltzen duten kirol ekitaldi eta txapelketak azter ditzan eta horiei laguntza eta babes publikoak ematea ekidin dezan. Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsia (22. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da neurriak ezar ditzan, bermatze aldera ikasleei eskainitako jardueren kalitate-eskakizunak betetzen dituztela lanaldi jarraitua ezartzen duten ikastetxe guztiek. Hezkuntza Batzordeak onetsia (22. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Kolonbiako lehendakariari eskatzen dio oposizioko buruzagi sozial eta politikoen, giza eskubideen defendatzaileen eta biktimizaturiko erkidegoen bizia eta osotasun fisikoa berma ditzan eta talde paramilitarrak desegiteari ekin dakien. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsia (23. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hasi beharreko izapideak has ditzan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat sortzeko, Cabanillas, Fustiñana eta Ribaforadako ikasleak ikastetxe bakar batean elkartzea ahalbidetuko duena. Mozioa erretiratzea (24. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da “English Week” murgiltze-programako ikaspostu-kopurua handitu dezan. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (24. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoa sortzekoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoa sortzeko Foru Legea onetsi zuen

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Foru Legea, Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoa sortzekoa**

#### ATARIKOA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.26 artikulua ezartzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa du lanbide elkargoen arloan eta tituludun lanbideetako jardunaren gaineko gaietan, legeria orokorrarekin bat.

Agindu horretan ezarritakoari jarraituz, eta Nafarroako Foru Komunitateak bereganatutako eskumenak ikusirik, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea eman zen, eta haren erregelamenduzko garapena abenduaren 18ko 375/2000 Foru Dekretuak ekarri zuen, zeinak Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Legea garatzeko erregelamendua onetsi baitzuen.

Araudi horren babesean, Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoa sortzeko eskaera aurkeztu da, helbidea Foru Komunitatean izanik, titulazio ofizial hori, zeinean jarduteko eskatu baita elkargoa sortzea, duten profesioetatik gehienek sinatua. Eskaera horren tramitazioaren emaitza da foru lege hau.

Elkargoan sartzeko, beharrezkoa da Informazio Zientzietako lizentzia edo graduko unibertsitate-titulua izatea, Kazetaritzaren edo Ikus-entzunezko Komunikazioaren arlokoa. Elkargoan halaber sartzeko ahalko dira Kazetarien Erregistro Ofizialean kazetari gisa egiaztaturik daudenak, edozein titulazio izanda ere, baldin eta inskripzioa 1982ko uztailaren 1a baino lehen egin bazen, zeren eta data horretan erregistroak izaera ofiziala galdu baitzuen. Atzerriko profesionalei dagokienez, kasuko agintaritzak kalifikazioak onartzearen arloan Europar Batasunaren esparruan indarra duen araudia aplikatuko da.

Espainiako Konstituzioaren 20. artikulua xedatzen duenez, herritar guztiek dute eskubidea egiazko informazioa libreki adierazi edo jasotzeko, zabalkunderako edozein bitarteko erabiliz; eta, beraz, komenigarritzat jotzen da elkargoa sortzea, kazetariaren jardun profesional egokia babestea ahalbidetuko duelako lanbidean modu duinean aritzea bermatuz, eta horrek, era berean, herritarrentzako zerbitzu hobea ekarriko du, bai eta profesionalei gaitasun eta kalitate maila handiagoak exigitzea haien lanean.

Azaldutakoa ikusirik, eta Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoa sortzeko interes publikoko arrazoiak badirela kontuan harturik, foru lege honen bidez sortu egiten da aipatu elkargoa.

#### **1. artikulua.** Elkargoa sortzea eta haren izaera.

1. Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoa sortu egiten da, zuzenbide publikoko korporazio gisa, berezko nortasun juridikoa eta bere helburuak betetzeko nahiz bere egin-kizunetan aritzeko ahalmen osoa duena.

2. Lanbide Elkargoak nortasun juridikoa izanen du foru lege honek indarra hartzen duenetik, eta jarduteko gaitasuna, bere gobernu organoak eratzeko direnetik.

**2. artikulua.** Jarduteko lurralde esparrua.

Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoaren jarduteko lurralde esparrua Nafarroako Foru Komunitatea izanen da.

**3. artikulua.** Langile esparrua.

1. Elkargoan sartzan ahalko dira Informazio Zientzietako unibertsitate-titulazioa, Kazetaritzaren eta/edo Ikus-entzunezko Komunikazioaren arlokoa, duten pertsonak, bai eta 1982ko uztailaren 1a baino lehenagotik Kazetarien Erregistro Ofizialean kazetari gisa egiazaturik eta izena emanik zeudenak ere.

2. Atzerriko profesionalei dagokienez, kasuko agintaritzak kalifikazioak onartzeari buruzko Europar Batasuneko zuzenbide indarduna aplikatuko da.

**4. artikulua.** Jardun profesionala eta elkargoan sartzea.

Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoan sartzea borondatezkoa izanen da, non eta aplikatzekoa den estatu-legeriak ez duen ezartzen hura nahitaezkoa izatea.

**5. artikulua.** Administrazioarekiko harremanak.

Bere helburuak betetzeko, alderdi korporatiboei eta erakundeekiko harremanei dagokienez, Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoak lanbide elkargoen arloan eskumena duen departamentuarekin bideratuko ditu harremanak; eta, lanbideak berezko dituen edukiei dagokienez, komunikazioaren arloko eskumena duen departamentuarekin.

**6. artikulua.** Araudia.

Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoak lanbide elkargoei buruzko legeria indardunari, bere estatutuei eta, kasu bada, bere barne araudiari jarraituko die.

**Lehen xedapen iragankorra.** Kudeaketa Batzordea.

Nafarroako Kazetarien Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kideek, kudeaketa batzorde gisa arituz, foru lege hau onesten denetik sei hilabeteko epean onartu beharko dituzte Colegio Navarro de Periodistas/Nafarroako Kazetarien Elkargoaren behin-behineko estatutuak. Estatutu horietan elkargoaren eratze-batzarra arautu beharko da, horretarako deialdia egiteko modua eta garatze-prozedura ezarritik.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Elkargoaren eratze-batzarra eta estatutuak.

1. Elkargoaren eratze-batzarraren deialdiari ahalik eta publizitate handiena ematen zaiola bermatu beharko da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitateko egunkari hedatuenetan hura argitaratuz.

2. Elkargoaren eratze-batzarraren eginkizunak hauek izanen dira:

a. Elkargoaren behin betiko estatutuak onestea.

b. Elkargoaren organoetan kasuan kasuko karguak bete behar dituzten pertsonak hautatzea.

3. Elkargoaren behin betiko estatutuak, onetsiak izan ondoren, elkargoaren eratze-batzarraren aktaren ziurtagiriarekin batera, igorri egin beharko zaizkio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan lanbide elkargoen arloko eskumena duen departamentuari, eta horrek, legezketasun-kalifikazioa eman eta gero, aginduko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**Foru Legea, kreditu berezia ematekoa Garraioaren Hiriko finken balio justua ezartzeari buruzko epaiari aurre egiteko, eta Nafarroako 2017ko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 28ko 24/2016 Foru Legea aldatzekoa, kreditu hori zabalgarritzat jo dadin.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, kreditu berezia ematekoa Garraioaren Hiriko finken balio justua ezartzeari buruzko epaiari aurre egiteko, eta Nafarroako 2017ko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 28ko 24/2016 Foru Legea aldatzekoa, kreditu hori zabalgarritzat jo dadin".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Legea, kreditu berezia ematekoa Garraioaren Hiriko finken balio justua ezartzeari buruzko epaiari aurre egiteko, eta Nafarroako 2017ko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 28ko 24/2016 Foru Legea aldatzekoa, kreditu hori zabalgarritzat jo dadin**

**ATARIKOA**

Nafarroako Desjabetze Epaimahaiak erabaki bat hartu zuen 2008ko apirilaren 30ean, finka baten balio justua ezartzeari buruzkoa, Iruñeko Garraioaren Hiria handitzeko UPSaren proiektua gauzatzeko helburuz. Nafarroako Administrazio Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan erabaki horren kontra aurkeztutako 555/2008 errekurtsuari buruz eman zen 23/2013 epaia betearazteko piezan, auto bat eman zen 2015eko martxoaren 24an, eta haren kontra berraztertze bi errekurtsio aurkeztu ziren. Azkenik, errekurtsio horiek ezesteko, aipatutako pieza berean beste auto bat eman zen, 2016ko otsailaren 2an, eta honen kontrako 776/2016 kasazio-errekurtsioa Auzitegi Gorenak ezetsi egin zuen, 22/2017 epaiaren bidez.

Epai horrek dakarren ordainketari aurre egiteko, Nafarroako Lurzorua eta Etxebizitzak SA (Nasuvinsa) enpresa publikoak kasuko funts-hornikuntza eskatu du.

Espediente hauek ez dira batera tramitatzen ari, eta honako hau epaietako lehenbizikoa da. Nasuvinsak epaitik eratorritako ordainketaren parte bati aurre egin ahal izateko, bidezkoa da gastu partida bat sortzea 2017ko aurrekontuan, 25 milioi eurokoa, eta izaera zabalgarria ematea partida horri, urtean zehar epai guztiak kontrako suertatuz gero partida hori behar adina krediturekin finantzatu ahal izateko, halatan.

Nafarroako 2017ko Aurrekontu Orokorrak erantsia duten oroitidazkiko 2. ataleko 13. puntuan hau dago ezarrita: «13. Garraioaren Hiriaren gaineko epaia. "Iruñeko Garraioaren Hiria handitzeko Plana" izeneko proiekturako desjabetutako finken balio justuari buruz Auzitegi Gorenak emandako epaiak betearazteko 17 prozesu daude abian. Auzitegi Gorenaren epaia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren interesen kontrako izanez gero, ordaindu beharrekoaren zenbatekoak, guztira, 49.198.705,38 euro egingen du. Memoria honen 5. puntuan ("2017ko ekitaldiko kontingentziak eta kontingentzia funtsa") atal berezi batean deskribatzen diren beste kontingentzia batzuk ez bezala, kasu honetan, kontuan harturik haren zenbateko handia, eta epaiak zein epetan emanen diren aurreikusierik ez dagoela, ez eta epaiak aldekoak edo kontrakoak izanen diren eta ordainketa gauzatzeko aurrekontu formula zein izanen den, egokiagotzat jotzen da kontingentzia hori Kontabilitate Nazionalako doikuntza gisa agertzea, gastumuga 25.000.000 euroko zenbatekora murrizten baitu. Horniketa horrekin, ordainketari aurre egiten ahalko zaio epaiaren %50 kontrako bada. Epaia kontrako izanez gero, kreditu berezia edo kreditugehigarria emateko foru lege bat tramitatuko litzateke, Parlamentuan beharrezkoa den eztabaida egitea ahalbidetzeko. Foru lege horrek kreditu berezia edo kreditugehigarria emanen luke, hartutako aurrekontu-soluzioaren arabera dagokiona, eta hura finantzatzeko, lehenengo eta behin, Nafarroako Aurrekontu Orokorreran ezarritako diru-sarrera aurreikuspenak erabiliko lirateke –ordurako aldatu ez badira–, kontingentzia hau hornitzeko gastumuga kalkulatzeko deskontatu direnak.»

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua xedatzen duenez, hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indarduna-

ren kargura egin behar bada eta aurrekontuan krediturik ez badago, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari, kreditu berezi bat emateko.

**1. artikulua.** Kreditu berezi bat ematea.

25.000.000 euroko kreditua ematea onesten da, 2017an "Iruñeko Garraioaren Hiria handitzeko Plana" izeneko proiektua dela-eta desjabetutako finken balio justuari buruz Auzitegi Gorenak emandako epaiak betearazteari aurre egiteko.

Kreditu hori aurrekontu partida honetan aplikatuko da:

110000-11000-4400-923400 partida, "Transferentzia arruntak Nasuvinsari. Garraioaren Hiriaren gaineko epaia" izenekoa.

**2. artikulua.** Kreditu bereziaren finantzaketa.

Kreditu berezi honen finantzaketa aurrekontuko "PFEZaren diru-sarrerak" izeneko 157001-17A00-

1005-000000 partidaren aurreikusitako diru-sarreraren handiagoko kargura egingen da, 25.000.000 euroko zenbatekoarekin.

**3. artikulua.** Nafarroako 2017ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 24/2016 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako 2017ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 24/2016 Foru Legearen 5. artikulua aldatzen da, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren "Transferentzia arruntak Nasuvinsari. Garraioaren Hiriaren gaineko epaia" izeneko 110000-11000-4400-923400 partida zabalgarria dela deklaratzeko.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**Foru Legea, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, zeina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, zeina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Legea, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, zeina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen**

HITZAURREA

I

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina hein batean aldatzeko foru lege honen bidez, errentak bermatzeko sistemak aurrerapauso handia egingen du Nafarroan bere babes-ahalmena areagotzeari dagokionez, nabarmen hobetzen duelako pentsio apalenak jasotzen dituzten pertsonen errenta erabilgarria, eta bere aplikazio esparrua ere asko zabaltzen delako. Horrela, gaur arte alargun-pentsioei aplikatu zaien kenkari osagarrien sistema fiskala hobetzearekin batera, erretiro-pentsioetara zabalduko da sistema hori bera; halatan, pertsona



guzti horien errenta erabilgarria handitu egingen da, haien bizi-baldintzak hobetzen laguntzeko.

Alargun-pentsioengatikoko kenkarien kasuan, beharrezkoa da arau aldaketa bat egitea, 2017ko lanbide arteko gutxieneko soldata (LGSa) finantzatzen duen abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatzen baita LGSaren zenbateko berriak ez diela eragiten estatukoak ez diren arauetan jasotako erreferentziei. Bidezkotzat jotzen da alargun-pentsioengatikoko kenkari honen erreferentzia 2017ko LGSa adinako zenbateko bat izatea; 2016koa baino %8 handiagoa, beraz.

Erretiro-pentsioengatikoko kenkaria ezartzearekin batera, igoera progresibo bat egingen da, harik eta 2019an guztiz bat egin arte alargun-pentsioengatikoko kenkariari aplikatzen zaizkion zenbatekoekin; halatan, 2017an kenkariaren erreferentziako zenbatekoa 2016ko LGSa adinako izanen da, %2 gehituta; 2018koa, berriz, zenbateko hori gehi %3 izanen da; eta 2019an, azkenik, berdinduta geldituko dira zenbatekoak, berriz ere %3 gehituta.

Neurri horiez gain, kenkarirako eskubidea zehazteko, subjektu pasiboaren eta bere familia unitatearen beste errenta batzuk ere kontatuko direla ezartzen da arauan, eta horrek, beraz, hobekuntza ekarriko du, bai birbanaketa-efektuan bai ahalegin fiskala premia handiena duten gizataldeengana bideratzeari dagokionez.

Era berean, foru lege honekin etorkizunerako bermatzen da pentsiodun guztien errenta erabilgarrien gutxieneko horien balioa urtero automatikoki berrituko dela KPI-Kontsumoko Prezioen Indizearen eta Nafarroako batez besteko soldaten multzoaren balio handiagorekin, erregelamendu bidez ezarriko den moduan, halako moldez non pentsio apalenak jasotzen dituztenen erosahalmena mantenduko baita, LGSaren erreferentziaz harago joanda; izan ere, LGSa Espainiako Gobernuaren eta Gorte Nagusien erabaki politikoaren menpe dago, eta ez du bermatzen prezioen bila-kaerari jarraituko dionik.

Kenkari fiskalak erretiro-pentsioak jasotzen dituzten guztiengana zabaltzea behin eta berriz adierazitako asmoa izan da, eta pentsiodun guztientzat diru-sarrera duinak ziurtatzeko konpromisoa bete-betean onartzen dela esan nahi du. Neurri fiskal horri esker, Nafarroako politika soziala koherenteagoa eta zuzenagoa ere izanen da, eta horrela behin betiko gaituzteko da alargun-pentsioen aldean eman izan zaien tratamendu okerragoa, behar bezala inoiz justifikatu ez dena.

Pentsio hauen tratamendu fiskala babes sozialerako beste neurri batzuekin uztartzen da, hala nola errenta bermatuarekin edo kotizazio gabeko pentsioen bestelako tratamendu batekin; errenta-bermerako sistema osoaren koherentzia hobetuko duen planteamendua osatzen da horrela, egoera bakoitzean sarrera duin eta egokiak bermatzeko helburuarekin.

## II

Testuinguru horretan, foru legeak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 68. artikulua aldatzen du, zeinaren izenburuak adierazgarria izan nahi baitu: alargun-pentsioen eta kotizaziopeko erretiro-pentsioen ondoriozko kenkari buruzkoa da. Alegia, artikulua horretan kenkari horiek direla-eta egiten den erregulazio berriak barnean hartzen ditu, batetik, alargun-pentsioak (Gizarte Segurantzakoak izanik gutxienekoetarainoko osagarria dutenak eta halakorik ez dutenak, eta SOVIkoak), eta bestetik, kotizaziopeko erretiro-pentsioak.

Artikuluak bi letra ditu. Haren A) letrak alargun-pentsioengatikoko kenkariak aurreikusten ditu, eta lau atal ditu.

1. atalaren gaia gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea duten alargun-pentsioengatikoko kenkaria da. Atal honetan, adierazgarriena da kenkaria aurrerantzean ez dela lotuta egonen lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoarekin, eta berritasun hau ezartzen dela: pentsioaren zenbatekoa 9.906,40 euro baino gutxiagokoa denean, kenkari bat egiten ahalko da jasotako pentsioaren zenbatekoaren (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bateginaren 60. artikuluan araututako amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbateko horren arteko alde negatiboa adinako.

2. eta 3. ataletako gaiak, hurrenez hurren, hauek dira: gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubiderik ez duten alargun-pentsioengatikoko kenkariak, eta Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko (SOVI) alargun-pentsioengatikoko kenkaria.

Bi aldaketa egiten dira. Lehen aipatu dugunaz gain, hau da, lanbide arteko gutxieneko soldatarekin ez lotzeaz eta kenkariaren zenbatekoaren erreferentzia 9.906,40 euroko zenbatekoa izateaz gain, beste berritasuna da errenta eta ondare muga bat ezartzen dela kenkari baliatuzko. Horrela, xedatzen da ezen, kenkari horiek egiteko, beharrezkoa izanen dela subjektu pasiboa behar turik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera, eta, horrekin batera, alargun-

pentsioari eta kasuko kenkariari gehituta 17.022,60 eurotik gorako guztizko zenbatekoa egiten duen beste errentarik, salbuetsiak barne, jaso ez izana zergaldian. Beste zehaztapen bat dago; alegia, aipatutako errenten batura muga horretatik gora baldin badago, mugaz gaindiko kopurua behar den heinean kenduko zaiola kenkariaren zenbatekoari, kenkaria ezerezteraino ere, kasua bada.

Orobat adierazten da ezen, subjektu pasiboa familia unitate bateko kide denean, kenkaria egin ahal izateko beharrezkoa izanen dela familia unitate horretako ezerein kide beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera; eta, gainera, errenta-muga 19.812,80 eurokoa izanen da, familia unitate osoa hartuta; kasua bada, kenkaria murriztu egingen da familia unitateko kide ez diren subjektu pasiboei dagokienez ezarritako moduan.

Azkenik, xedatzen da ezen errenta-mugan ez direla sartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera saihesteko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko handiko etxeetan edo bazterketa sozialaren arriskua dutenetan jasotzen direnak.

Letra honen 4. atalean jasota daude alarguntasun-pentsioengatiko kenkariari aplikatu beharreko arau orokorrak, eta merezi du nabarmentzea hiru kenkariak bateraezinak izanen direla Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean araututako errenta bermatuaren prestazioa jasotzearekin, nahiz eta, errenta bermatuaren prestazioa zergaldi osoan jaso ez denean, kenkari fiskalak aipatu prestazioa jaso ez den egunen kopuruaren proportzioan kalkulatu diren.

Halaber zehazten da ezen kenkariaren kalkulurako eta errenta-mugarako aintzat hartu beharreko kopuruak eguneratu egingen direla Kontsumoko Prezioen Indizearen gehikuntzaren eta Nafarroako batez besteko soldaten multzoaren balio handiagoarekin, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

68. artikuluko B) letran, kotizaziopeko erretiro-pentsioengatiko hiru kenkari berriak arautzen dira: gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea duten erretiro-pentsioengatiko kenkariak, gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea ez duten erretiro-pentsioengatiko kenkariak, eta zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguru (SOVI) zahartzaro-pentsioengatiko kenkariak.

Hiru kasuetan, 2017an kenkari fiskala kalkulatzeko, jasotako pentsioaren zenbatekoaren (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 60. artikuluan araututako amatasuneko

osagarria barne, kasua bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa hartuko da irizpide gisa. 2018an, kenkaria kalkulatzeko, 9.631,40 euroko zenbatekoari 2017ko Kontsumoko Prezioen Indizea aplikatuko zaio. 2019an, 9.906,40 euroko zenbatekoari 2017ko eta 2018ko Kontsumoko Prezioen Indizea aplikatuz kalkulatu da kenkaria. Hurrengo urteetan, aurreko urtekoari Kontsumoko Prezioen Indizea aplikatzearen emaitza izanen da zenbatekoa.

Errenta-mugari dagokionez, erregulazioa A) letrako bera da; hau da, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian ez jaso izana beste errentarik, salbuetsiak barne, baldin eta alargun-pentsioari eta kasuko kenkariari baturik, 17.022,60 euro baino gehiagoko batura ematen badu. Beste zehaztapen bat dago; alegia, aipatutako errentak muga horretatik gora baldin badaude, mugaz gaindiko kopurua kenkariaren zenbatekoari kenduko zaiola, kenkaria ezetzteraino ere, kasua bada.

Era berean, B) letran araututako alarguntasun-pentsioengatiko kenkariari aplikatzeak diren arau orokorreari dagokienez, xedatzen da hiru kenkariak bateraezinak izanen direla errenta bermatuaren prestazioa jasotzearekin. Kenkari horiek, A) letran xedatzen denarekin kontrajarriak, ezin izanen dira alde aurretik ordaindu. Azkenik, arau batzuk ezartzen dira, kenkaria eta errenta-muga kalkulatzeko kontuan hartu beharreko kopuruak urtero eguneratzeko.

Kotizazio gabeko erretiro-pentsioengatiko kenkari fiskalari buruzko 68.bis artikuluan ere zenbait aldaketa egin dira. Jakina denez, kotizazio gabeko erretiro-pentsio bat jasotzen duen subjektu pasibok errenta bermatua jasotzeko baldintzak betetzen baditu aldi berean, kenkari fiskala egiten ahalko du, zegokiokkeen errenta bermatuaren urteko zenbatekoa izanen duena. Pertsona guztiek gizarteratzeko eta errenta bermatua jasotzeko eskubidea izatea bermatzeko xedeaz, paragrafo berri bat gehitzen zaio artikuluko horren 1. atalari, honakoa zehazteko: kenkaria Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriaren 2. ataleko bigarren paragrafoan aurreikusitakoari jarraikiz egingen da, hau da, kenkari fiskala egiteko eskubidea izanen da, soilik, familian prozedura arruntaren bidez errenta bermatua jaso dezakeen beste kiderik ez badago.

Beste alde batetik, foru legean berezitasun adierazgarri batzuk jasotzen dira irabazi-asmorik gabeko entitateek ordaindutako zenbatekoen gaineko atxikipen eta informazio betebeharreari dago-



kienez, betiere zenbateko horiek lan etekinak direnean eta kirol jarduerak sustatu edo egiteko eta kultur proiektuak eta jarduerak egiteko erabiltzen badira.

Horretarako, berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarria gehitzen da, ezartzen duena jasotzaile bakoitzeko urteko zenbatekoa 3.600 eurokoa edo txikiagoa denean ez dela atxikipenik egin ez eta kasuko informazio ereduari jaso beharrik izanen. Salbuespen edo berezitasun horiek eranstean dira zerga-araua sinpleagoa eta betetzen errazagoa izan dadin; kontuan harturik, gainera, ordainsari txiki horiek joan-etorrietako gastuak eta materialaren erabilera konpentsatzeko izaten direla hein handi batean askotan.

Aitzitik, urteko zenbatekoak jasotzaile bakoitzeko 3.600 euro baino gehiagokoak direnean, zerga-arabide orokorra aplikatuko zaie, atxikipen eta informazio-betebeharrei dagokienez. Nolanahi ere, atxikipen portzentajeen taularen arabera atxikipenik egin behar ez badute ere, ordaindutako etekin osoaren gaineko 100eko 2ko atxikipena edo konturako sarrera eginen da beti.

Azkenik, eta zuzenketa tekniko batzuk egitearren, aldatu egiten dira Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legeko zenbait arau, amaierako lehen xedapenak adierazten duen moduan.

**Artikulu bakarra.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren honako manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) testu hau izanen dute, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:

Bat. 68. artikulua. Alargun-pentsioen eta kotizaziopeko erretiro-pentsioen ondoriozko kenkariak.

A) Alargun-pentsioengatikoko kenkariak.

1. Gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea duten alargun-pentsioengatikoko kenkaria.

Lehena. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alargun-pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak, gutxienekoetarainoko osagarriak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginaren 59. artikuluan aipatutakoak, jasotzeko eskubidea badu, kenkari bat aplikatzen ahalko du, kasuan kasuko pensio

motarentzat ezarritako gutxieneko urteko zenbatekoaren (aipatutako testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasuneko osagarria gehituta, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Bigarrena. Alargun-pentsioa beste pensio batzuekin batera jasotzen den kasuan, kenkaria izanen da jasotako pensioen zenbatekoen baturaren (amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Hirugarrena. Gizarte gaien arloko eskumena duen departamentuari kenkari hori alde aurretik ordaintzeko eskatzen ahalko zaio. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk eginen.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta alde aurretiko ordainketa eskatzeko eta eskuratzeko prozedura ere. Erregelamendu horretan gutxieneko bat ezartzen ahalko da, irizpidetzat kudeaketaren efizientzia hartuta, eta gutxieneko horretatik behera ez da kenkariaren ordainketa alde aurretik jasoko.

2. Gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubiderik ez duten alargun-pentsioengatikoko kenkaria.

Lehena. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, Gizarte Segurantzarengandik kotizaziopeko alarguntasun-pensio bat jasotzen duen subjektu pasiboak, baldin eta pensio horren zenbatekoa handiagoa bada kasuko pensio-motarako finkaturiko urteko gutxieneko kuota baino eta txikiagoa 9.906,40 euro baino, zilegi izanen du kenkari bat aplikatzea, jasotzen duen urteko pensio-zenbatekoaren (aipatutako testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasuneko osagarria gehituta, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbateko horren arteko alde negatiboa adinakoa.

Bigarrena. Alargun-pentsioa beste pensio batzuekin batera jasotzen den kasuan, kenkaria izanen da jasotako pensioen zenbatekoen baturaren (amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Hirugarrena. Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian, guztira, 17.022,60 eurotik gorako zenbatekoa egiten duen beste errentarik jaso ez izana, salbuesiak barne, alargun-pentsioa eta kenkaria bera gehituta.

Aipatutako errentak muga horretatik gora baldin badaude, mugaz gaindiko kopurua kenkariaren zenbatekoari kenduko zaio behar den heinean, kenkaria ezerezteraino ere, kasua bada.

Subjektu pasiboa familia unitate bateko kide denean, kenkaria egin ahal izateko beharrezkoa izanen da familia unitate horretako ezein kide beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera; gainera, lehen paragrafoan ezarritako errenta-muga 19.812,80 eurokoa izanen da, familia unitate osoa hartuta, eta kenkaria, kasua bada, murriztuko da bigarren paragrafoan ezarritako moduan.

Aurreko paragrafoetan ezarritako errenta-muga zehazterakoan, ez dira sartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera saihesteko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko berezia edo bazterketa sozialaren arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

Laugarrena. 2. atal honetan araututako kenkaria ez da alde zuzenetik ordaintzerik izanen.

Erregelamendu bidez ezarriko da kenkari hori baliatzeko prozedura.

3. Zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaetzko aseguru (SOVI) alargun-pentsioengatik kenkaria.

Lehenena. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaetzko aseguru (SOVI) alargun-pentsio bat jasotzen duen subjektu pasiboak kenkari bat egiten ahalko du, jasotako pensioaren urteko zenbatekoaren (aipatutako testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Bigarrena. Zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaetzko aseguru (SOVI) alargun-pentsioa beste pensio batzuekin batera jasotzen den kasuetan, kenkaria izanen da jasotako pensioen zenbatekoen baturaren (amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.906,40 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Hirugarrena. Kenkari hori egiteko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian, guztira, 17.022,60 euro baino gehiagoko zenbatekoa egiten duen beste errentarik jaso ez izana, salbuesiak barne, alargun-pentsioa eta kenkaria bera gehituta.

Aipatutako errentak muga horretatik gora baldin badaude, mugaz gaindiko kopurua kenkariaren

zenbatekoari kenduko zaio behar den heinean, kenkaria ezerezteraino ere, kasua bada.

Subjektu pasiboa familia unitate bateko kide denean, kenkaria egiteko beharrezkoa izanen da familia unitate horretako ezein kide beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera, eta, gainera, lehen paragrafoan ezarritako errenta-muga 19.812,80 eurokoa izanen da, familia unitate osoa hartuta, eta kenkaria murriztuko da, kasua bada, bigarren paragrafoan ezarritako moduan.

Aurreko paragrafoetan ezarritako errenta-muga zehazterakoan, ez dira sartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera saihesteko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko berezia edo bazterketa sozialaren arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

Laugarrena. Gizarte gaien arloko eskumena duen departamentuari kenkari hori alde zuzenetik ordaintzeko eskatzen ahalko zaio. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egingen.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta alde zuzenetik ordaintzeko eskatzeko eta eskuratzeko prozedura ere. Erregelamendu horretan gutxieneko bat ezartzen ahalko da, kudeaketaren efizientzia irizpidetzat hartuta, eta gutxieneko horretatik behera ez da kenkariaren ordainketa alde zuzenetik jasoko.

4. A) letrako kenkariei aplikatu beharreko arau orokorrak.

Lehenena. Letra honetan araututako kenkariak kalkulatzearen ondorioetarako, alargun-pentsioa edo horrekin baterako beste edozein pensio ez baldin bada jaso zergaldi osoan, haren zenbatekoa urtera eramanen da. Kasu horretan, alargun-pentsioa jasotzeko eskubidea zergaldian zehar zenbat egunez eduki, horren proportzioan kalkulatu da kenkaria.

Bigarrena. Letra honetan araututako kenkariak bateraezinak dira Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean arautzen den errenta bermatuaren prestazioa jasotzearekin.

Nolanahi ere, errenta bermatuaren prestazioa zergaldi osoan jaso ez bada, kenkariak kalkulatu da prestazioa jaso ez den egunen kopuruaren proportzioan.

Hirugarrena. Diru kopuru horiek, 9.906,40, 17.022,60 eta 19.812,80 eurokoak, A) letra honetan aipatzen direnak, 2017an aplikatuko dira. Hurrengo urteetan, zenbatekoen urteroko

eguneratzea eginen da Nafarroan KPlak duen gehikuntzaren eta Nafarroako batez besteko soldaten multzoaren balio handiagoarekin, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

B) Kotizaziopeko erretiro-pentsioengatiko kenkariak.

1. Gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubidea duten kotizaziopeko erretiro-pentsioengatiko kenkariak.

Lehena. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, Gizarte Segurantzarengandik kotizaziopeko erretiro-pentsio bat jasotzen duen subjektu pasiboak, baldin eskubidea badu Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginaren 59. artikuluan aipatutako gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko, kenkari bat aplikatzen ahalko du, kasuan kasuko pensio motarentzat ezarritako urteko gutxieneko zenbatekoaren (aipatutako testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasuneko osagarria gehituta, kasua bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Bigarrena. Erretiro-pentsioa beste pensio batzuekin batera jasotzen den kasuan, kenkaria izanen da jasotako pensioen zenbatekoen baturaren (amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

2. Gutxienekoetarainoko osagarriak jasotzeko eskubiderik ez duten kotizaziopeko erretiro-pentsioengatiko kenkariak.

Lehena. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, Gizarte Segurantzatik kotizaziopeko erretiro-pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak, pensio hori kasuan kasuko pensio motarentzat finkatutako gutxieneko urteko zenbatekotik gorakoa eta 9.356,30 euroko zenbatekotik beherakoa bada, kenkari bat egiten ahalko du, jasotako pensioaren urteko zenbatekoaren (aipatutako testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasuneko osagarria barne, halakorik bada) eta 9.356,30 euroko zenbateko horren arteko alde negatiboa adinakoa.

Bigarrena. Erretiro-pentsioa beste pensio batzuekin batera jasotzen den kasuan, kenkaria izanen da jasotako pensioen zenbatekoen baturaren (amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Hirugarrena. Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortza aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian,

guztira, 17.022,60 eurotik gorako zenbatekoa egiten duen beste errentarik jaso ez izana, salbuesiak barne, erretiro-pentsioa eta kenkaria bera gehituta.

Aipatutako errentak muga horretatik gora baldin badaude, mugaz gaindiko kopurua kenkariaren zenbatekoari kenduko zaio behar den heinean, kenkaria ezeztatzeraino ere, kasua bada.

Subjektu pasiboa familia unitate bateko kide denean, kenkaria egiteko beharrezkoa izanen da familia unitate horretako ezein kide beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortza aurkeztera, eta, gainera, lehen paragrafoan ezarritako errenta-muga 19.812,80 eurokoa izanen da, familia unitate osoa hartuta, eta kenkaria murriztu da bigarren paragrafoan ezarritako moduan.

Aurreko paragrafoetan ezarritako errenta-muga zehazterakoan, ez dira sartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera saihesteko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko berezia edo bazterketa sozialaren arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

3. Zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguruaren (SOVI) zahartzaro-pensioen ondoriozko kenkariak

Lehena. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguru (SOVI) zahartzaro-pentsio bat jasotzen duen subjektu pasiboak kenkari bat egiten ahalko du, jasotako pensioaren zenbatekoaren (aipatutako testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Bigarrena. Zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguru (SOVI) zahartzaro-pentsioa beste pensio batzuekin batera jasotzen den kasuan, kenkariaren zenbatekoa izanen da jasotako pensioen zenbatekoen baturaren (amatasuneko osagarria barne, kasua bada) eta 9.356,30 euroko zenbatekoaren arteko alde negatiboa adinakoa.

Hirugarrena. Kenkari hori egiteko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortza aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian, guztira, 17.022,60 euro baino gehiago zenbatekoa egiten duen beste errentarik jaso ez izana.

Aipatutako errentak muga horretatik gora baldin badaude, mugaz gaindiko kopurua kenkariaren

zenbatekoari kenduko zaio behar den heinean, kenkaria ezerezteraino ere, kasua bada.

Subjektu pasiboa familia unitate bateko kide denean, kenkaria egiteko beharrezkoa izanen da familia unitate horretako ezin kide beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera; gainera, lehen paragrafoan ezarritako errenta-muga 19.812,80 eurokoa izanen da, familia unitate osoa hartuta, eta kenkaria murriztuko da, kasua bada, bigarren paragrafoan ezarritako moduan.

Aurreko paragrafoetan ezarritako errenta-muga zehazterakoan, ez dira sartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera saihesteko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko berezia edo bazterketa sozialaren arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

4. B) Ietrako kenkariari aplikatu beharreko arau orokorrak.

Lehena. Letra honetan araututako kenkariak kalkulatzearen ondorioetarako, erretiro-pentsioa edo horrekin baterako beste edozein pensio ez baldin bada jaso zergaldi osoan, zenbateko hori urtera eramanen da. Kasu horretan, zergaldian zehar erretiro-pentsioa jasotzeko eskubidea zenbat egunetan dagoen, kopuru horren proportzioan kalkulatu da kenkaria.

Bigarrena. Letra honetan araututako kenkariak bateraezinak dira Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean arautzen den errenta bermatuaren prestazioa jasotzearekin.

Nolanahi ere, errenta bermatuaren prestazioa zergaldi osoan jaso ez bada, prestazio hori zenbat egunez ez den jaso, kopuru horren proportzioan kalkulatu dira kenkariak.

Hirugarrena. Letra honetan araututako kenkariak ez dira alde zuzenetik ordainduko.

Kenkari hori baliatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.

Laugarrena. a) Kenkaria kalkulatzeko kontuan hartu beharreko zenbatekoak:

9.356,30 euroko zenbatekoa, letra honen aurreko atalean aipatzen dena, 2017an aplikatuko da.

2018an, zenbateko hori kalkulatu da 9.631,40 euroko zenbatekoari aplikatuz Nafarroan KPlak duen gehikuntzaren eta Nafarroako 2017ko batez besteko soldaten multzoaren balio handiagorekin, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

2019an, zenbateko hori kalkulatu da 9.906,40 euroko zenbatekoari aplikatuz Nafarroan KPlak duen gehikuntzaren eta Nafarroako 2017ko eta 2018ko batez besteko soldaten multzoaren balio handiagorekin, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

Hurrengo urteetan, kopurua izanen da aurreko urtekoari Nafarroan KPlak duen gehikuntzaren eta Nafarroako batez besteko soldaten multzoaren balio handiagora aplikatuz suertatzen dena, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

b) Errenta-muga kalkulatzekoan kontuan hartu beharreko zenbatekoak:

17.022,60 euroko eta 19.812,80 euroko zenbatekoak, letra honetako 2.Hirugarrena eta 3.Hirugarrena atalean aipatzen direnak, 2017an aplikatuko dira. Hurrengo urteetan, zenbatekoak eguneratu egingen dira Nafarroan KPlak duen gehikuntzaren eta Nafarroako batez besteko soldaten multzoaren balio handiagorekin, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

Bi. 68. bis artikulua. Deducción por pensiones no contributivas de jubilación

1. Dagokion kuota diferentziala finkatu ondoren, kotizazio gabeko erretiro-pentsioa (Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 369. artikulutik 372. artikulura bitartekoetan arautua) jasotzen duen subjektu pasiboak, Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen 5. artikulua errenta bermatua jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen baditu, zegokiokeen errenta bermatuaren urteko zenbatekoa adinako kenkaria egiten ahalko du.

Kenkaria Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriaren 2. ataleko bigarren paragrafoan aurreikusitakoari jarraikiz egingen da.

2. Gizarte gaien arloko eskumena duen departamentuari kenkari hori alde zuzenetik ordaintzeko eskatzen ahalko zaio. Kasu horretan ez da kenkaririk aplikatuko zergaren kuota diferentzian.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta alde zuzenetik ordaintzeko eskatzeko eta eskuratzeko prozedura ere.

Hiru. Berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria aldatzea.

Berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria. Entitate finantzarioekin eginiko akordioengatik edota epaiak edo arbitraje-laudoak betetzeagatik maileguen interes-tipoak mugatzeko klausulak i-



tzultzearen ondorioz jasotako kopuruen trataera fiskala.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

1. Zerga honen zerga-oinarrian ez da sartuko maileguen interes-tipoak mugatzeko klausulak aplikatu izateagatik lehenago sorturiko interesak direla-eta entitate finantzarioei ordaindutakoak diren kopuruen itzulketa, haiekin eginiko akordioen ondoriozkoa, esku-diru nahiz bestelako konpentsazio-neurrien bidezkoa, ezta haiei dagozkien ordain-interesak ere.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako itzulketaren xede diren kopuruek, zergadunak aurretiaz ordaindu dituenek, ondoko trataera fiskala izanen dute:

a) Zenbateko horiek aurreko ekitaldian ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatiko kenkariaren zati izan baziren, zenbateko horiek direla-eta kenkaria aplikatzeko eskubidea galduko da; hala, entitate finantzarioarekin akordioa egin zen ekitaldian sorturiko kuota likidoari gehitu beharko zaizkio; soilik, kasuko likidazioaren bidez tributu-zorra zehazteko Administrazioak duen eskubidea preskribaturik ez dagoen ekitaldian bidegabeki kendutako kopuruak, berandutza-interesak sartu gabe.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako gehikuntza ez zaie aplikatuko entitate finantzarioak, ukitutako zergadunarekin akordioa egin ondoren, maileguaren printzipala murriztera zuzenean bideraturiko zenbatekoei.

b) Zenbateko horiek gastu kengarrizat hartu baziren halako ekitaldian non Administrazioak kasuko likidazioaren bidez tributu-zorra zehazteko duen eskubidea preskribaturik ez dagoen, izaera hori galdu eginen dute eta ekitaldi horiei dagokien autolikidazio osagarria eginen da, zehapen, berandutza-interes edo errekar gurik gabe, akordioaren dataren eta zerga honen autolikidazioa aurkezteko hurrengo epea amaitzen den dataren arteko epean.

c) Zergadunak kopuru horiek ordaindu dituenen halako ekitaldian non zerga honengatik autolikidazioa aurkezteko epea ez zen amaitu kopuru horiek itzultzeari buruz finantza-entitatearekin lortutako akordioa baino lehenago, eta aurreko a) letrako bigarren lerrokadan aipatzen diren zenbatekoak, ez dira sartuko ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatiko kenkari-oinarrian, eta, halaber, ez dira gastu kengarrizat hartuko.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuko da, era berean, 1. idatz-zatian aipatutako kopuru-itzulketa egin bazen ebazpen judizialak edo arbi-

traje-laudoak exekutatzearen edo betetzearen ondorioz.

4. Finantza-entitateek Nafarroako Foru Ogasunari ziurtagiri bat igorri beharko diote, eta hartan jaso beharko dituzte epaiketaz kanpoko akordioen edo epai judizialen edo arbitraje laudoen exekuzioaren edo betetzearen terminoak, aurreko idatz-zatietan xedatutako neurrien tributu-kudeaketa errazte aldera.

Horretarako, honako hauei buruz informatu beharko dute:

– Itzultzen diren kopuruez, edozein dela ere horretarako hautatutako modua (eskudirutan itzultzea, mailegua gutxitzea edo beste batzuk), zein urtetako ordainketak diren zehaztuta.

– Ukitutako zergadunaren edo zergadunen identitateaz.

Informazio-betebehar horren ez-betetzea tributu arloko arau-haustea izanen da, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 72. eta 74. artikuluekin bat.

Lau. Berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarria gehitzea.

Berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. Kirol eta kultura zerbitzuekin lotutako jarduerak: atxikipena egiteko eta informazioa emateko betebeharrei buruzko berezitasunak.

#### 1. Aplikazio eremua.

a) Kirol jarduerak sustatu eta egitea xede duten irabazi-asmorik gabeko entitateek ordaindutako zenbatekoak, lan etekinen izaera dutenak, baldin eta jasotzaileak kirolari edo entrenatzaile badira, edo osasun-, arbitraje- edo antzeko zerbitzuak ematen badituzte, haien zerbitzu-emateek kirola egitearekin zerikusia duten heinean.

b) Kultur proiektuak eta jarduerak sustatu eta egitea xede duten irabazi-asmorik gabeko entitateek ordaindutako zenbatekoak, lan etekinen izaera dutenak, baldin eta jasotzaileek proiektu eta jarduera horiekin zerikusia duten zerbitzuak ematen badituzte, hala nola ondare historiko eta kulturalarekin lotutako zerbitzuak, museoak, kulturguneak eta liburutegiak, bai eta folklorea, antzerkia, arte eszenikoak eta ikus-entzunezkoak ere.

2. Ordaintzaileak dituen atxikipen eta informazio betebeharrei dagozkien berezitasunak.

a) 3.600 euroko zenbatekoak edo txikiagoak, urteko eta jasotzaile bakoitzeko:

Ez da atxikipenik egin beharko, ez eta zenbateko horiek kasuko eredu informatiboan sartu beharko ere.

b) 3.600 eurotik gorako zenbatekoak urteko eta jasotzaileko: ordaindutako zenbateko osoa tributu araubide orokorraren menpe egonen da atxikipena egiteko eta kasuko eredu informatiboan informazioa emateko betebeharrari dagokienez.

Nolanahi ere, atxikipen portzentajeen taularen arabera atxikipenik egin behar ez badute ere, ordaindutako etekin osoaren gaineko 100eko 2ko atxikipena edo konturako sarrera eginen da beti.

Egin beharreko atxikipena etekin ordaindu osoaren gainean eginen da. 3.600 euroko zenbateko-ra iritsi arte inolako atxikipenik egin ez bada, erregularizatu egin beharko da, halako moldez non urte amaieran zenbateko atxikia ordaindutako zenbateko osoari 100eko 2 aplikatzearen emaitza izan dadin.

3. Jasotzaileak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkezteko betebeharrari.

Subjektu pasibo jasotzaileek zerga honetan aitortpena aurkezteko betebeharrari dagokienez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudi orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

**Azken xedapenetan lehena.** Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen aldaketa.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrerako ondorioekin, Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen agindu hauek honako edukia izanen dute:

Bat. 5. artikuluko b) letra:

“b) Nafarroako Foru Komunitatean bizitzea, eskaera aurkezten den data baino bi urte lehenagotik gutxienez, edo urtebete lehenagotik, baldin eta familia unitatean adingabeak badaude, edo % 65eko nahiz gehiagoko desgaitasuna duten menpeko pertsonak”

Bi. 6. artikuluko 3. apartatua:

“3. Oro har, familia unitatea izanen da errenta bermatuaren jasotzaile, eta prestazio bakarra egokituko zaio. Salbuespen gisa, bi errenta bermatu jasotzen ahalko dira, familia unitate berean zenbait familia-nukleo egon eta haietakoren batean adingabeak edo %65eko nahiz gehiagoko desgaitasuna duten menpeko pertsonak daudenean.”

Hiru. 10. artikuluko e) letra:

“e) Pentsioak edo antzeko prestazioak, eskatzailearen familia-nukleokoak ez diren familia unitateko kideenak, edo eskatzailearen ardurapeko seme-alabenak, kide bakarreko unitate jasotzaile batentzako hileko errenta bermatuaren % 45erainoko zenbatekoa”

Lau. 12. artikulua:

“12. artikulua. Familia-unitatearen ondare ez-konputagarria.

Aurreko artikuluko ondarearen konpututik ondoko kontzeptuak salbuetsiko dira:

a) Ohiko etxebizitza, bertako altzariak, etxeko gauzak eta garraiorako ohiko ibilgailua, gehienez ere hirurehun mila euroko mugarekin.

b) Lanbide edo enpresa jarduera aurrera eramateko beharrezko tresna diren ondasunak, erregelamenduz ezarritako mugarekin”

Bost. 13. artikuluko 2. apartatua:

“2. Ondasun higigarri guztien balioa kide bakarreko familia unitate bati urtean dagokion errenta bermatuaren zenbatekoaren %65 adinakoa edo txikiagoa denean.”

Sei. 31. artikulua:

“31. artikulua. Zehapenen mailakatzea eta murrizketa.

1. Zehapenak honako hauen arabera mailatuko dira:

a) Arau-hauslearen asmoa.

b) Arau-hauslearen egiazko ulertze-gaitasuna.

c) Bidegabeki jasotako diru kopurua.

d) Nafarroako administrazio publikoek alde zuzenetik egindako errekerimenduak bete ez izana.

e) Familia-inguruabarrak, bereziki egoera ekonomikoari dagokionez.

f) Urtebeteko epean, kalifikatutako arau-hauslea egin zenetik, izaera bereko nahiz bestelako arau-hauste bat edo batzuk egin izana, ebazpen administratibo bidez irmo deklaratuak.

g) Zehapen prozedurari hasiera ematea eragin zuten kalteak zuzendu izana, baldin eta hori egin bada prozedura amaitu aurretik.

2. Zehapenak murriztu eginen dira erantzukizuna onartzen denean eta borondatezko ordainketa egiten denean, administrazio prozedura erkidearen araudian aurreikusitakoarekin bat.”



Zazpi. 33. artikulua:

“33. artikulua. Zehatzeko ahalmena.

Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteen-gatik Foru Komunitateko Administrazioak zehapenak ezartzeko, aplikatzekoa izanen da administrazio prozedura erkidearen araudian ezarritako zehapen prozedura.

Zehapen-prozedura arruntean ustezko arau-hausleen eskubideak babesteko aurreikusten diren bermeez gain, pertsona horiek eskatu ahalko dute beren zehapen-espeditentea egiaztatze-batzorde batek ikus dezan, haiei aldez aurretik entzutea emanda, entzute-urrats horretan haiek baimendua den pertsonak lagun eginda agertzeko aukerarekin. Batzorde horrek haien alegazioak era objektibo eta diziplinarteko batean balioetsiko ditu, eta haren osaera eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira. Aipatu batzordeak halaber esku hartu ahalko du, prozedura berari jarraituz, kautelazko etetearen kasuetan aurkezten diren alegazioak egiaztatzeko.”

Zortzi. Bigarren paragrafoa gehitzen zaio lehen xedapen gehigarriaren 2. apartatuari:

“Kenkaria egiteko eskubideaz baliatzen ahalko da pentsiodunaren familia unitatean errenta ber-

matua prozedura arruntaren bidez jaso dezakeen beste kiderik ez dagoenean”

Bederatzi. Bosgarren xedapen gehigarri berria gehitzen da:

Bosgarren xedapen gehigarria. III. kapituluko 2. ataleko prozedura.

“III. kapituluko 2. atalean aurreikusitako prozedura bide elektronikoak erabiliz gauzatuko da, administrazio prozedura erkidearen araudian aurreikusitako moduan.”

Hamar. Bigarren xedapen iragankorraren 1. apartatua:

“1. 14. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak erregelamenduz garatzen ez diren bitartean, errenta bermatuaren jasotzaileek norbere konturako edo besteren konturako enplegua lortzen badute, edo lehendik zuten jarduera ekonomikoa handitzen badute, lortutako diru-sarrera berriak ez zaizkie kontatuko enplegua hogeita hamar egun baino gutxiagorako baldin bada; bestela, progresibitatez kontatuko da pertsona bakar baten errenta bermatuaren % 50 edo gehiago egiten duten diru-sarreen zatia. Horretarako, errenta bermatua honela kalkulatu da:

$$\text{Renta Garantizada} = \left\{ (A \times RG_1) + \left\{ B \times \left[ \left( \frac{\text{Ingresos}}{100} \right) - \frac{\frac{1}{2} \times RG_1}{100} \right] \right\} \right\} - \text{Ingresos}$$

A: 0,50eko faktore zuzentzailea, 7. artikuluan adierazitako gehikuntzen gainekoa. Beraz, A-ren balioak hauek dira:

Kide bakar batentzat: 1,50

2 kiderentzat: 1,85

3 kiderentzat: 2,10

4 kiderentzat: 2,25

5 kiderentzat: 2,40

6 kiderentzat eta gehiagorentzat: 2,50

B: salbuespenaren progresibitatearen parametroa, 10 balioa duena, zeina urtero eguneratu ahalko baita, RG1aren zenbatekoen eguneratzearekin batera.

RG1: kide bakar baten errenta bermatuaren balioa.

Enplegurako pizgarri horiek gehienez ere urtebeteko jasotze aldian aplikatzen ahalko dira.”

**Azken xedapenetan bigarrena.** Arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Legea, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua zabaltzen duena Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun-langile batzuetara.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua zabaltzen duena Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun-langile batzuetara".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Legea,  
lanbide karreraren sistemaren  
aplikazio esparrua zabaltzen duena  
Osasun Departamentuari eta haren  
erakunde autonomoei atxiki gabeko  
beste osasun-langile batzuetara**

ATARIKOA

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legearen bidez, Nafarroako Foru Komunitatean lanbide karreraren sistema ezarri zen Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun-langile fakultatiboentzat. Lanbide karreraren sistema hori abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren bidez garatu zen.

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legearen aplikazio-eremutik kanpo utziak izan eta Foru Komunitateko Administrazioiko eta hari atxikitako erakunde autonomoetakoak diren osasun-langile fakultatibo finkoen eskakizunak etengabeak izan dira.

Horregatik, eta 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei gehitutako zenbait zuzenketaren bitar-

tez, partida batzuk handitu egin ziren eta beste batzuk sortu, Osasun Departamentukoak edo haren erakunde autonomoetakoak ez diren osasun-langile fakultatiboek lanbide karrera ordaindu ahal izateko.

Hori dela-eta, honako foru lege hau proposatzen dugu, lanbide karreraren aplikazioa Nafarroako Gobernuak beste departamentu batzuei eta haien erakunde autonomoei atxikitako langileetara hedatzeko xedez.

**1. artikulua.** Xedea.

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legeak eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legeak ezarritako lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua zabaltzeko eginen da Nafarroako Gobernuaren departamentu guztietako eta haren erakunde autonomoetako osasun-langile fakultatibo guztietara, baldin eta lanpostua jabetzan badute eta haien sarbide eta izendapenerako nahitaezkoa bada edo izan bada lanpostua urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean jasotako "Fakultatibo espezialistak" edo "Bertze osasun fakultatiboak" izeneko estamentuetan sailkatzea ahalbidetzen duten osasuntitulazioetako edozein edukitzea.

**2. artikulua.** Araubide juridikoa.

Foru lege honetan aurreikusi ez den guztirako, aplikatuko da honako hauetan xedatutakoa: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboek lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/999 Foru Legean, Lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen dien azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legean, eta 11/1999 Foru Legea garatzeko arauak ezartzen dituen abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuan.

**3. artikulua.** Ondorio ekonomikoak.

Hasierako koadramendua ezarritako arauari eta prozedurei jarraikiz egin ostean, kasuan kasuko zenbatekoen ordainketa 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera egingen da.

**4. artikulua.** Ebaluazio batzordea.

Lanbide karreraren sistemaren aplikazioa hedatzen zaien profesionalen ebaluazioa Osasun Publiko, Administrazio eta Osasun Kudeaketako Ebaluazio Batzordearen eskumena izanen da.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Egoera bereziak.

1. Foru lege honetan araututako lanbide karreraren sistema bere aplikazio-eremuan sartutako langileei izanen zaie aplikatzekoa, noiz eta ere osasun arloko profesional tituludunen lanpostuak atxikita dituzten administrazio-unitateetako buruzak betetzen ari baitira, foru lege honen garapenerako erregelamendu-araudian ezarritako arauari jarraituz.

2. Foru lege honetan araututako lanbide karreraren sistema bere aplikazio-eremuko langileei aplikatuko zaie noiz eta ere langileen ordezkari-organotako kide baitira, legez ezarritako ordurkredituaz lanaldi osoan baliatu ahal direnak. Kasu horretan, mailaz igotzeari dagokionez, eskatu eta ebaluatuko zaie, iraunaldiak errespetatzeaz harago, prestakuntzako, ikerketako eta garapen tekniko jardueri buruzko baremoaren ataleko bete-beharren betetzea bakarrik, foru lege honen garapenerako erregelamendu-araudian ezarritako arauari jarraituz.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Aldi baterako emandako zerbitzuak.

1. Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomoek aintzat hartuko dituzte foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera eta bere aplikazio-eremuan osasun arloko langile fakultatiboek aldi baterako kontratu bidez emandako zerbitzuak, baldin eta osasun arloko fakultatiboa eremu horretan sartu bada eta zerbitzu horiek foru lege honen garapenerako erregelamendu-araudian finkatutako arauen arabera ebaluatu badira.

2. Halaber, aintzat hartuko dira foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera aldi baterako kontratu baten bidez emandako zerbitzuak, 11/1999 eta 31/2002 foru legeen aplikazio-esparruan.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Toki-erakunde menpeko osasun-langileak.

Toki entitateetako osasun-langile fakultatiboak foru lege honetan arautzen den lanbide karreraren

sisteman sartu ahalko dira, baldin eta zerbitzuak ematen dituzten udaleko udalbatzak hala erabakitzen badu, horretarako berariaz hartutako erabakiaren bitartez.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomotako osasun-langile fakultatiboek aplikatzea.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik, Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan lanpostu bat jabetzan izan eta borondatezko mugikortasuneko prozeduren bitartez foru lege honen aplikazio-esparruko osasun arloko kasuko titulazioa exigitzen zaien lanpostu batera sartzen diren osasun-langile fakultatiboek, Osasun Departamentuan finkatuta zuten lanbide-karrerako maila aitortuko zaie.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan aplikatzea.

Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomoek aitortu egingen diete, foru lege honen aplikazio-eremuan sartuta dauden osasun-langile fakultatiboek, lanbide karreraren finkatuta daukaten maila, fakultatiboak eremu horretara aldatzen diren kasuetan. Kasu horietan, lanbide karrerako araubide aplikagarria izanen da apirilaren 6ko 11/1999 eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legeek eta abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuak ezarritakoa.

**Seigarren xedapen gehigarria.** Lanbide karreraren mailari eustea.

Baldin eta osasun-langile fakultatibo finkoak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako beste departamentu baten edo haren erakunde autonomoen menpe egotera pasatzen badira, jatorrizko departamentu edo erakunde autonomoan lanbide karrerari zegokionez aitortuta zeukatzen mailari eutsiko zaio.

**Zazpigarren xedapen gehigarria.** Lanbide karrerako osagarriaren zenbatekoak.

1. Foru lege honen aplikazio-eremuko osasun-langile fakultatiboen lanbide karrerako osagarriak zenbateko hauek izanen ditu urtean:

- I. maila:
- II. maila: 2.917,88 euro.
- III. maila: 5.835,90 euro.
- IV. maila: 8.753,78 euro.
- V. maila: 11.671,80 euro.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako zenbatekoak urtero eguneratuko dira, Nafarroako aurrekontu oro-

korrei buruzko foru legeetan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen ordainsarietarako ezartzen den igoera-portzentajearen oinarrituta.

**Lehenengo xedapen iragankorra.** Osasun-langile fakultatiboak kasuko lanbide karrerako mailan sailkatzea hasiera batez.

1. Foru lege honen aplikazio-eremuko osasun-langile fakultatibo finkoen hasierako sailkapena egingen da kasuko lanbide karreraren maila esleituz Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan osasun-langile fakultatibo gisa jabetzako lanpostu batean emandako zerbitzu-urteen arabera; halaber, kontatu egingen dira Europar Batasuneko kide diren estatuetako osasun sistema publikoetan osasun-langile fakultatiboaren baliokidea den izendapen batekin emandako zerbitzu-urteak, honako eskala honen arabera:

- 5 urte baino gutxiago, I. maila.
- 5 urtetik gora, II. maila.
- 14 urtetik gora, III. maila.
- 22 urtetik gora, IV. maila.
- 29 urtetik gora, V. maila.

2. Zerbitzuan emandako urteak beharrezko direnak baino gehiago izanez gero, soberakin diren urteak kontuan hartuko dira etorkizunean mailaz igotzeko. Mailaz igotze hori egingen da foru lege honetan eta bere garapenerako erregelamenduzko araudian ezarritako prozedurari jarraituz.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Mailaz igoetzea.

Langileak aurreko xedapenean ezarritakoaren arabera hasieran eman zaien mailatik gora igo-

tzeko, laguntza-jardueren eta lanbide-hobekuntzako eta -eguneraketako jardueren balorazio gisa exigitutako puntuazioa proportzionalki egokituko da, foru lege honek indarra hartzen duen egunetik mailaz igotzeko exigitzen den iraupen-aldia betetzen den datara arte iragandako denbora-epearen arabera.

**Hirugarren xedapen iragankorra.** Ezohiko prozedura, Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun-langile fakultatibo finkoek foru lege honek indarra hartu aurretik bere aplikazio-eremuan emandako zerbitzuak aitortzekoa.

Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun-langile fakultatibo finkoek, baldin eta lanbide karreraren sistema ezarrita ez zeukaten Foru Komunitatearen Administrazioako lanpostuetan osasun-langile fakultatibo finko gisa zerbitzua eman badute, zerbitzu hori aitor dakien eskatu ahalko dute.

**Azken xedapenetan lehena.** Foru lege hau garatu eta betetzeko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau bete eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da lege-esparrua alda dezan elektrizitatea eta elektrizitatearen produkzioa, hornidura eta merkaturatzea herritarren zerbitzura egon daitezen eta energia-pobrezia prebenitzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da lege-esparrua alda dezan elektrizitatea eta elektrizitatearen produkzioa, hornidura eta merkaturatzea herritarren zerbitzura egon daitezen eta energia-pobrezia prebenitzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du lege-esparrua alda dezan, halatan elektrizitatea eta horren produkzioa, hornidura, banaketa eta merkaturatzea herritarren zerbitzura egon daitezen, eta pobrezia energetikoa prebenitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea alda dezan, BEZ murriztu bat ezarriz etxeko erabilerarako gasaren eta elektrizitatearen preziorako.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du epe luzeko energia plan bat presta dezan, irizpide hauek kontuan hartuko dituen: ingurumen iraunkortasuna, energia-autonomia, horniduraren segurtasuna eta bideragarritasuna; eta prezioen sistema zuzenago bat ezar dezan energiarako".

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sakonki eta xeheki azter dezan Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako gradua ezartzeko aukera.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sakonki eta xeheki azter dezan Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako gradua ezartzeko aukera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, NUPeko arduradunekin elkarlanean, Medikuntza Gradua NUPen ezartzeko aukera sakonki eta xeheki aztertzei. Horretarako, 2009an egindako bideragarritasun plana gaurkotu egingo du, aldagai guztiak egokituz, aztertuz eta objektiboki arrazoituz. Gobernuak Bideragarritasun



sun Plan berria eta gaia lantzeko osatutako lantalde horrek egindako hausnarketa eta ateratako ondorioak sei hilabeteko epean aurkeztuko ditu Nafarroako Parlamentuan.”

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kasuko legedia alda dezan, halako moduz non gorputz-atal baten bizirikako ematea egiten duten pertsonak aukera izanen baitute, eta ofizialki hala aitortuko baitzaie, aldi baterako ezintasunagatik baja hartzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kasuko legedia alda dezan, halako moduz non gorputz-atal baten bizirikako ematea egiten duten pertsonak aukera izanen baitute, eta ofizialki hala aitortuko baitzaie, aldi baterako ezintasunagatik baja hartzeko”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du HePA elkarteak (Asociación Española de Ayuda a Niños con Enfermedades Hepáticas y Trasplantados Hepáticos) eginiko eskaera, eta Espainiako Gobernua premiatzen du kasuko legedia alda dezan, halako moduz non gorputz-atal baten zehazki, giltzurrun edo gibelaren bizirikako ematea egiten duten pertsonak aukera izanen baitute, eta ofizialki hala aitortuko baitzaie, aldi baterako ezintasunagatik baja hartzeko, emakume haurdunek laneko baja hartzeko duten aukeraren modura.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babesema ematen dio organoen emateari –bereziki, bizidunek organoak emateari–, herritarren ongizatea hobetzeko erronkan.

3. Nafarroako Parlamentuak txalotu egiten du organo-emateen altruismoa, eta aldi berean zorionak ematen dizkio nafar gizarteari, ematearen alde erakusten duen jarrera onagatik, bai eta emate nahiz transplante-prozesuetan parte hartzen duten profesionaleri ere, beren lan ahalegindu eta gogotsuagatik.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du berma dezan pertsona batek, bizirik dagoela, organo bat emateagatik nozitzen ahal duen osasun-aldaketak ez dezala penalizaziorik ekar aseguruak edo maileguak kontratatu edo berritzerako orduan.

5. Erabaki hau Espainiako Gobernuari, Diputatuen Kongresuko talde parlamentarioei eta Transplanteen Erakunde Nazionalari igortzea.”

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da emakumearen gorputza publizitate-apeu gisa edo sexu-objektu gisa erabiltzen duten kirol ekitaldi eta txapelketak azter ditzan eta horiei laguntza eta babes publikoak ematea ekidin dezan.**

*KULTURA, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2017ko maiatzaren 5ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da emakumearen gorputza publizitate-apeu gisa edo sexu-objektu gisa erabiltzen duten kirol ekitaldi eta txapelketak azter ditzan eta horiei laguntza eta babes publikoak ematea ekidin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren bidez ekitaldiak azter ditzan, eta ekidin ditzan edozein administrazio, erakunde autonomo eta bestelako ente eta enpresa publikoek laguntza publikoak eta babes publikoak ematea Nafarroan eginiako kirol-txapelketa eta ekitaldiei, haietan emakumearen gorputza publizitate-apeu gisa edo sexu-objektu gisa edo emakumearen gaitasunak gutxietsiz erabiltzen baldin bada. Betiere begiratuko du

arlotan emakume-irudi iraingarriak desagera daitezkeen.

2. Zaindu dezan berdintasun-legeak betetzen direla; bereziki, 14/2015 Foru Legea, aurreikusten diren zehapenak ezarri arau-haustearen erantzule diren erakunde edo enpresei, eta praktika horri amaiera emateko behar diren baliabideak eta bitartekoak erabiliz.

3. Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuari eska diezaien azterlan diagnostiko bat prestatzea Nafarroan laguntza eta babes publikoak jasotzen dituzten kirol ekitaldi eta txapelketetan emakumearen gorputza publizitate-apeu gisa erabiltzeari buruz, eta Nafarroako Kirolari buruzko 15/2001 Foru Legean behar diren aldaketak susta ditzan, kirol ekitaldi eta txapelketetan emakumearen gorputza apeu gisa erabiltzearen debekua sartze aldera.

4. Ildo horren aldeko irizpide zuzentzaileak sar ditzan “Nafarroako kirol jokoetan eta kirol federatuen emakumeek duten egoera” azterlanean”.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da neurriak ezar ditzan, berraztertu aldera ikasleei eskaintako jardueren kalitate-eskakizunak betetzen dituztela lanaldi jarraitua ezartzen duten ikastetxe guztiek.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da neurriak ezar ditzan, berraztertu aldera ikasleei eskaintako jardueren kalitate-eskakizunak betetzen dituztela lanaldi jarraitua ezartzen duten ikastetxe guztiek”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du neurriak ezar ditzan, berraztertu ezean lanaldi jarraitua edo malgua ezartzen duten ikastetxe guztiek bete egiten dituztela ikastetxeetara arra-

tsaldez joan beharra duten ikasleei eskainitako jardueren kalitate-eskakizunak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du berma dezan lanaldi jarraitua edo lanaldi malgua eskaintzen duten ikastetxe guztiek betetzen dutela jantoki zerbitzua eskatzen duten familiei zerbitzu hori lehengo baldintza ekonomiko berberetan eta kalitate berarekin eskaintzearen betekizuna.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak ezar ditzan bermatu ahal izateko jantoki zerbitzua eta arratsaldeko ordutegian egiten diren jarduerak kalitaterik handienarekin eta ekitatearen nahiz aukera berdintasunaren printzipioei jarraikiz egiten direla.”

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Kolonbiako lehendakariari eskatzen dio oposizioko buruzagi sozial eta politikoen, giza eskubideen defendatzaileen eta biktimizaturiko erkidegoen bizia eta osotasun fisikoa berma ditzan eta talde paramilitarrak desagiteari ekin dakien.**

### *BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak, 2017ko maiatzaren 3an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Kolonbiako lehendakariari eskatzen dio oposizioko buruzagi sozial eta politikoen, giza eskubideen defendatzaileen eta biktimizaturiko erkidegoen bizia eta osotasun fisikoa berma ditzan eta talde paramilitarrak desagiteari ekin dakien”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Juan Manuel Santos Kolonbiako lehendakariari eskatzen dio oposizioko buruzagi sozial eta politikoen, giza eskubideen defendatzaileen eta biktimizaturiko erkidegoen bizia eta osotasun fisikoa berma ditzan eta talde paramilitarrak desagiteari ekin dakien, halaxe ezarri baitzen Bake Akordioaren zenbait puntuetan, parte-hartze politikoari, gatazkaren bukaerako bakea eraikitzeke irekitasun demokratikoari eta biktimak: egiarako, justiziarako, erreparaziorako eta errepikapenik ezerako sistema integralari buruzkoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Txile, Venezuela, Kuba eta Norvegia herrialde bermatzaileei eskatzen die esku har dezaten, ekidite aldera Kolonbian Unión Patrióticarekin burutu zen genozidioa-

ren moduko bat berriro egin dadin. Izan ere, gogoran izan bedi ezen, 2012an Marcha Patriótica izeneko mugimendu politiko eta soziala sortu zenetik, horren 130 kide erail dituztela orain arte, eta orain arte ez da inolako emaitzarik egon ez ikerketetan ez erailketen erantzuleak zehaztean ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Europar Batasunari eskatzen dio gertuago lagun dezan Kolonbiako bake prozesua, eta Santos Kolonbiako lehendakariari eska diezaion itundutakoa azkar betetzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa aldarrikatzen du, Kolonbiako bakearekiko, Bake Akordioen gauzatzearekiko eta gatazka armatua amaitzea nahiz borrokan aritu direnak bizitza zibilerantz itzultzea sustatzen duten ekintzekiko.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Kolonbian garatzen ari den bake prozesuari bere babes politiko eta instituzionala adieraz eta berrindar diezaion.

6. Nafarroako Parlamentuak erabaki hau jakinaraziko die Juan Manuel Santos Kolonbiako lehendakariari eta Tejjipazen zuzendari exekutibo eta legezko ordezkari den José Ferney Lozano Medina jaunari”.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hasi beharreko izapideak has ditzan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat sortzeko, Cabanillas, Fustiñana eta Ribaforadako ikasleak ikastetxe bakar batean elkartzea ahalbidetuko duena.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkezturko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hasi beharreko izapideak has ditzan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat sortzeko, Cabanillas, Fustiñana eta Ribaforadako

ikasleak ikastetxe bakar batean elkartzea ahalbidetuko duena. Mozioa 2017ko apirilaren 7ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da “English Week” murgiltze-programako ikaspostu-kopurua handitu dezan.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Alberto Catalán Higuera jaunak honako mozio hau aurkeztu zuen: “Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da “English Week” murgiltze-programako ikaspostu-kopurua handitu dezan”

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2017ko martxoaren 24ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza